


Euskal AEko BPGk hiruhileko arteko %0,6ko hazkundera izan zuen 2014ko laugarren hiruhilekoan

Azken hiruhilekoan %1,7ko urte arteko tasa dugu; 2014 osoan BPG %1,1 hazi zen

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) %0,6ko hazkundera izan du 2014ko laugarren hiruhilekoan aurrekoaren aldean, urtaro- eta egutegi-eraginik gabe, Eustaten aurrerapen-datuen arabera. Aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkundera ehuneko bi hamarren handiagoa da; seigarren hiruhilekoa jarraian tasa positiboekin.

Aldakuntza-tasa, %1,7 aurreko hiruhilekoaren aldean, 2014ko hirugarren hiruhilekoan baino lau hamarren handiagoa.



Eskaintzaren ikuspegitik, 2014ko laugarren hiruhileko urte arteko hazkundera zerbitzuek jokaera hobea izan dutelako izan da.

Enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan neurtuta, %0,5 gehitu da hiruhileko artean, hirugarrenean baino lau hamarren gehiago. Urte artean, %1,0ko gehikuntza laugarren hiruhileko honetan; 2014ko hirugarren urte arteko positiboa jarraian. Tasa hau aurreko hiruhilekoa baino bost hamarren handiagoa da.

2014 osoan, BPGren lehen zenbatespena %1,1eko hazkundera da, bi urtez atzera joan ondoren. Enpleguan, aurreneko aldiz 2008tik, hazkuntza, %0,3, bost urtez tasa negatiboak izan ondoren.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEKo Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren gaineko datu-bankua